



LESAKA

EGIAZTAPENERAKO KODE SEGURUA SORTZEA

Urriaren 1eko 39/2015 Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearekin eta urriaren 1eko 40/2015 Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legearekin bat, eta herritarrei gure entitatearekin harremanetan jartzeko komunikazio-sistema telematiko bat emateko xedez,

559/2021 ebazpenaren bidez, ebatzi dut:

1.)2020ko abenduaren 11an Alkateak emandako 543/2020 ebazpena indarririk gabe uztea.

2).Lesakako Udalaren egiaztapenerako kode segurua sortzea <https://sedeelectronica.lesaka.eus/> helbide elektronikoan, ezaugarri hauekin:

- Dokumentu bakoitzerako sortutako kode guztiak bakarrak eta ausazkoak izango dira, eta lotura izango dute sortzailearekin.

-Ziurtapen kualifikatuan oinarritutako zigilu elektroniko aurreratuko sistema baten baliokide izango da segurtasun kriptografikoa.

-Ondorio legalek irauten duten aldi oso-osoa iritsi ahalko da kodeak egiaztatutako dokumentura, egoitza elektronikoaren bidez –eta, halakorik balego, barruan duen fitxategi elektronikoaren bidez–. Berehala eta doan iritsi ahalko dira dokumentura pertsonak.

-Ulertuko da toki-entitatea identifikatuta dagoela Interneteko bere atarian edo iristeko beste edozein gunetan bere gisa argitaratuko den informazioarekiko baldin eta haiek egoitza elektronikotzat jotzen badira legez.

-Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta erakunde honen egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzeko agintzea.”

Lesaka, 2021eko azaroaren 19an.



Alkatea,
Ladis Satrustegui Alzugaray